

“Bergara Crowdfunding”. Proposamen teknikoa.

1. Ideia nagusia

Herritarren, eragileen eta Bergarako Udalaren artean crowdfunding erako finantzazio sarea sortu, Bergaran ekintzailetasuna suspertzen eta gauzaten laguntzeko, lanpostuak sortzeko eta tokiko ekonomia bultzatzeko: “Bergara Crowdfunding”.

1.a Zer da Crowdfunding-a

Crowdfunding ingelesezko hitza da “finantzazio/diru-bilketa kolektiboa” edo “elkar finantzazioa/diru-bilketa” esan nahi duena (crowd: masa, taldea; + funding: finantzazioa, diru-bilketa).

Pertsonak zein erakundeek osatzen duten sarean oinarritzen da non, era kolektiboan, dirua edo bestelako baliabideak lortzea den helburua beste pertsona edo erakunde batzuek martxan jarri nahi dituzten proiektuak laguntzeko edo era askotako beharrak asetzeko.

Crowdfunding-ak nahi beste helburu izan dezake: proiektu edo pertsona bati laguntzea, kausa baterako dirua biltzea, enpresak martxan jartzea... Zenbait sare tematikoak dira, hau da, mota konkretu bateko proiektuetan espezializatzen dira (oinarri teknologikoa duten enpresak sortzekoak, artearen alorrekoak...).

Dirua edo baliabideak jartzen dituzten pertsonen/erakundeen eta baliabideok jasotzen dituzten agenteen arteko harremana ere era askotarikoa izan daiteke: batzuetan, baliabideok dohainik, inongo lotura barik, eskaintzen dira; beste batzuetan, ordea, itzuli beharreko mailegu erara edota akziodun edo jabego konpartitu erara.

Internet-eko plataforma bat erabili ohi da proiektuon difusioa egiteko eta dirua edo dena delako baliabidea biltzeko.

1.b Hainbat Crowdfunding eredu

Munduan zehar eta gure inguruan crowdfunding inizatiba asko aurki ditzakegu eta azkar ugaltzen ari den finantzazio sistema da. Jarraian zenbait adibide:

a. Kickstarter.com

Crowdfunding ereduak: donazioa.

Online espazio honetan proiektu kreatiboak aurrera ateratzeko dirua biltzen da. Kasu honetan dirua dohainik uzten zaio proiektua abian jarri nahi duenari. Diseinua, artea, antzerkia..., oro har, sormenarekin lotutako proiektuak bultzatzera (eta ezagutzera ematera) dago zuzenduta.

Proiektuaren jabeen eta diruz laguntzen dutenen artean ez da inongo lotura legalik ez finantzariorik ezartzen.

b. Somolend.com

Crowdfunding eredu: mailegua.

Somolend-en berezitasuna da dagoeneko ibilbide probatua daukaten enpresei mailegua ematean oinarritzen dela. Beraz, kasu honetan, dirua jaso duenak itzuli egin behar du.

Oinarritzko funtzionamendua bera da: enpresak proiektu edo produktu berri bat garatzeko ideia proposatzen du, hori aurrera ateratzeko zenbat behar duen adierazten du eta inbertitzaile posibleek diruz laguntzen dute, beti ere, mailegu eran itzultzeko konpromisoarekin.

c. Sociosinversores.es

Crowdfunding eredu: asoziazioa (onuren zati bat).

Izenak berak iradokitzen duen bezala, kasu honetan proiektu baten bultzatzailek sozioak bilatzen ditu negozio bat martxan jartzeko. Dirua lagatzearen trukean, inbertitzaileek eskubidea daukate negozioak ematen dituen mozkinen zati bat bereganatzeko.

Kasu honetan, beraz, negozio pribatuak (era askotarikoak) dira sustatzen diren proiektu mota.

d. Goteo.org

Crowdfunding eredu: mistoa.

Gure inguruan ezagunenetarikoa da, hein handi batean, helburu sozialak dituzten proiektuak bultzatzen dituelako, gizarteari onura ekar diezaioketen proiektuak. Kasu honetan, proiektuak aurkezten dituztenek beharren bi maila identifikatu behar dituzte: oinarritzko beharrianak (gutxieneoak) eta beharrian optimoak (proiektua guztiz martxan jartzeko behar lituzketenak). Honela, crowdfundingin bi fase dauzka: 1) 40 eguneko erronda bat gutxieneoetara iristeko eta, hori gaindituz gero, 2) 40 eguneko erronda bat optimoetara iristeko.

Proiektu bakoitzaren bultzatzaileak zehazten du zein konpromiso mota hartzen duen diruz laguntzen diotenekin (dirua itzuli, sozio bilakatu, produktuaren doako erabilera bermatu...).

2. Bergararako proposatzen den Crowdfunding ereduaz

2.a Aurrekariak

Krisi ekonomikoko garaian izan arren gure inguruan ere ez da falta negozioak martxan jartzeko beharrezko ideiak eta gaitasunak dituen ekintzailerik. Hala ere, banako edo talde hauek muga handi batekin egiten dute topo: proiektuok aurrera ateratzeko behar dituzten baliabideak lortzeko finantzazio iturriak eskasak izan ohi dira, edo bere gain hartu ezin ditzaketen baldintzetan soilik lortzeko modukoak.

Baina, aldi berean, badago beste pertsona edo ekintzaile batzuen proiektuetan inbertitu nahiko lukeenik, dela norberarentzako etekin ekonomikoa lortzeko, dela gainontzekoen proiektuak gauzatzen lagundu nahi duelako.

“Bergara Crowdfunding”-ek ekintzaileak eta inbertitzaile edo laguntzaileak uztartuko ditu, Udalaren eta beste erakunde batzuen babesarekin.

2.b Proiektuaren helburuak

- Bergaran lana sortu.
- Bergaran elkarri laguntza sustatu.
- Ekintzaileak eta inbertsore/laguntzaile posibleak detektatu eta elkartu.

2.c Proiektuaren hartzaileak

- Bergaran gauzatzeko proiektua duen edonor (berdin dio Bergarako herritarra izan ala ez).
- Bergarako zein kanpoko enpresak, Bergaran lanpostu bat sortuko luketenak.

2.d Proiektuaren deskribapena

“Bergara Crowdfunding”-ek ekintzaileak eta inbertitzaile edo laguntzaileak uztartuko ditu, plataforma digital bat erabilita.

Bergarako Udala, udalerriko, Gipuzkoako zein EAEko beste eragile eta erakunde batzuekin batera, “Bergara Crowdfunding”en parte aktibo izango da: batetik, proiektuen bideragarritasuna aztertuko duen batzorde batean parte hartuko du; bestetik, diru-bilketan parte aktibo izango. Azken honetarako diru-poltsa bat eratuko da (aurrez aipatutako erakundeen eskutik) inbertitzaile pribatuek jarriko duten diruaren osagarri izango dena.

Proiektuen bideragarritasuna aztertuko duen batzordeak (aurreantzean “Bergara Crowdfunding Batzordea”) ezarritako oinarritzko filtroa pasatzen duten proiektuak webgune batean jarriko dira ikusgarri, irekian, hala nahi duten guztiek kontsultatzeko moduan.

Proiektuetan inbertitu nahi duen edo haiek lagundu nahi dituen edonork, pertsona zein erakunde, web-orri horren bitartez egin ahalko ditu dagozkion tramiteak.

2.d.1 Oinarritzko baldintzak

- Proiektuen sinesgarritasuna bermatzeko, “Bergara Crowdfunding Batzordea”ren jarduna profesionala izango da. Bertan parte hartzen dutenek, Udalak barne,

profesionaltasunez eta ezarritako arau eta irizpide zehatz batzuen arabera jokatuko dute.

- Era askotako proiektuak aurkezteko malgutasuna eskainiko duen sistema izango da.
- Diru-poltsa izango da, non Udalak eta erakunde publiko eta eragile desberdinek jarriko duten dirua. Diru-poltsa hau inbertitzaile “anonimoek” jartzen duten diruaren osagarri izango da.
- Hasierako inbertsioak eginda, Bergara Crowdfunding bere burua finantzatuko duen proiektua izatea bilatuko da (maileguak berreskuratu ahala).
- Online plataforma izango da proiektuak ezagutzera emateko eta elkarri laguntzeko aukera eskainiko duena. Honen bitartez bideratuko dira tramiteak.

2.d.2 Proposatutako crowdfunding eredua

Baliabide-bilketari dagokionean, proiektu-jabe bakoitzak definitu beharko du zein lotura mota ezarri nahi duen bere inbertitzaile-laguntzaileekin aurrera begira (donazioa, asoziazioa, mailegua...). Erakundeek osatutako diru poltsatik jasotzen duen diruaren zatia, ordea, itzuli egin beharko du mailegu eran.

Inbertitzaileek, beren aldetik, euren kabuz eta arduraz jokatuko dute eta eurek erabakiko dute proiektuen jabeek proposatzen duten lotura mota ezarri nahi duten ala ez.

“Bergara Crowdfunding”-ek ondoko loturak onartuko ditu inbertitzaile eta proiektu-jabeen artean:

- Kapital modura: Inbertitzaileek dirua eman egingo dute eta proiektuaren sozio edo akziodun bilakatuko dira baldintza legeletan aurreikusitako moduetan.
- Mailegu modura: Inbertitzaileek dirua utzi egingo dute eta ezarritako baldintzekin bueltan jasoko dute. (Udalak beste erakunde batzuekin osatuko duen diru-poltsak formatu honetan soilik utziko du dirua).
- Donazio modura: Inbertitzaileek diru eman egingo diete proiektu jabeek, inongo loturarik ezarri barik.
- Azter daiteke ere, diruaz gain, mota guztietako laguntzak eskaintzea proiektuaren jabeek zehazten duten beharren arabera (esaterako, hirigunean pakete banaketa jasagarria burutu nahi duen pertsona edo enpresa batek bizikleta bat eskatu ahalko du). Aukera hau aurrera eramateko kontuz jokatu beharko da ez dadin salerosketa gune bilakatu.

2.d.3 Bergara Crowdfunding-en oinarritzko funtzionamendua

0. Proposamenak hartzeko, beti irekita: Bergara Crowdfunding-en proiektuak aurkezteko epea ez da itxia izango, ekintzaileek proiektuak garatu ahala aurkeztu ahalko dituzte. Honela, webgunea bera ere beti egongo da aktibo.

1. Proiektua aurkeztu: Promotoreak ideia edo beharra planteatuko du. Gutxienez ondorengoak zehaztu beharko ditu:

- Ideia/proiektuak zertan datzan
- Bideragarritasun plana aurkeztu
- Gauzatzeko programa/memoria aurkeztu
- Zenbat diru behar duen
- Dirua donazio eran, kapitalean ala maileguan nahi duen

2. Batzordeak proposamena aztertu: Proposamenak aztertzeko batzordeak (Bergara Crowdfunding Batzordeak) aztertuko du proiektua, Bideragarritasun Plana ikuskatu eta Bergaran lanpostua sortzen duen baieztatuko du.

3. Crowdfunding-a abiatu: Batzordeak ezarritako baldintzak betez gero, proiektua publikoki erakutsiko da web orrian. Une horretan finantzazio eskaera irekita egongo da, hala nahi duen guztiak parte har dezan.

4. Udalaren eta erakundeen laguntza ekonomikoa:

Bergarako Udalak, beste erakunde publiko batzuen laguntzarekin, Crowdfunding proiektuarentzako diru-poltsa jarriko du, esaterako 500.000 eurokoa (Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Jaurlaritzaren, Espainiako Gobernuaren eta Europar Batasunaren artean, erakunde bakoitzak, esaterako, 1/5 jarrita, 100.000 euro).

Honela, diru-poltsa honetatik proiektu batek banakoen babesari lortu heinean beste hainbeste jarriko da: "Herritarrak 1 euro = Udalak+ beste erakundeek 1 euro" (hau, ordea, beti izango da mailegu eran).

5. Diru-poltsaren funtzionamendua:

- Udalak Crowdfunding erara dirua uzteko baldintza eta irizpideak zehaztuko ditu. Esan bezala, proposatzen da poltsa honetatik ematen den dirua mailegu eran soilik eskaintzea, baldintza zehatzak jarrita.
- Aurrera begira, helburua da sistemak berak bere burua mantentzea (hau da, maileguetatik dirua berreskuratzen den heinean poltsa elikatzea).
- Poltsa honetatik proiektu bakarrean inbertitzeko diru-muga ezarriko da, esaterako, 50.000 euro.
- Poltsa honetatik laguntzak jasotzeak ez luke erakundeek eskaintzen dituzten bestelako diru-laguntzekin interferituko.

2.e Oinarrizko operatiba eta beharrianak

a. Web plataforma: Proiektuak herritarrei aurkezteko oinarrizko euskarria izango da. Beren bitartez proiektuen arduradunak eta inbertitzaile posibleak elkarrekin harremanetan jarriko dira.

b. Legezko baldintzak zehaztea: Ondo aztertu behar dira parte hartzaileen arteko harremanak (herritarren zein erakundeen eskubide eta betebeharrak) eta udal fondoaren erabilera arautuko dituzten baldintza legalak.

